

LUMA BERRIEN AZTARNAK
HAIZEA GALARRAGA ARRIZABALAGA

Haizea Galarraga

REC

Ez da kondaira bat, ez. Orain dela hilabete eskas gertatu zen; hurbil; nigandik hurbil eta are hurbilago zugandik. Hemen, han; atzo edota herenegun, hori gutxienekoa da.

Emakume liraina zen, oso ederra; ederregia, antza. Dotorea, jantzia eta argia; oso azkarra, azkarregia, antza. Eta beti izan da horrela, jaio zenetik, hil zuten arte; ari-maz hil zuten arte, esan nahi dut. Heriotza guztiak ez baitira kanpotik antzemangarriak. Egon daiteke barnea hilda eta gorputza besteen begietara bizi-bizirik. Eta nor ausartu daiteke hori gezurra dela esatera? Eta bera... Bera hil egin zuten, gaur, oraindik, arnasa har dezakeen arren.

Goizeko 8:00ak. Ez zen lanera joan. Igandea zen. Egun hartan, logelako ispiluaren parean geratu zen zutik; bere islari aurrez aurre begira, estreinakoz egingo balu bezala. Isilik; hitzak soberan zeuden; eta soberan gainera, soinean zeraman oro. Biluzten hasi zen; poliki, motel, momentuaz gozatuz. Bera eta ispiluan ere bera, biak bakarrik. Bideokamera ohe gaineko apalategian utzi zuen; den-dena harrapatzeko moduko leku aproposenean, alegia. Rec botoiari eman eta berearekin jarraitu zuen.

REC. «Soberan ditut zapatak; hamabi bat zentimetroko takoi hauek ez ditut behar jada. Mundua zapaldu nahi dut bai, baina nire oinen indar hutsaz. Oinutsik, aztarna utziz pauso bakoitzean, nire urratsen biografia osteko sinadura bailitzan. Ezker, eskuin, ezker, eskuin, ezker, eskuin, baina beti aurrera.

»Estutzen ninduen; ninduen bai, iraganeko aditza erabiliz, gaur soberan dut-eta gerrikoa. Zulo gehiegi ditu, edonork nire 'nia' gehiago, eta gehiegi, estutzeko aukera errazegia ematen du. Soberan.

»'Estali' baino hitz itsusiagorik ez dago, gezurraren pareko da. 'Erakutsi' oso gertu du hiztegian, 'estali' baino aurrerago gainera; eta horrek, horrek zerbait esan nahiko du. Aurretik doanak irabazten du beti lasterketa. Soberan, soineko hau. Estaltzen nauen soinekoa.

»Oroitzen Dali margolariaren artelan hura? Leihoan, bizkarra emanez, emakume bat. Neu naiz. Zain. Beti zain. Beti zure zain. Beti zure etorreraren zain. Beti zure etorreraren osteko besarkadaren zain. Beti zure etorreraren osteko besarkadaren berotasun zintzoaren zain. Beti zure etorreraren osteko besarkadaren berotasun zintzoaren geroko muxuaren zain. Zain. Zai. Zzzzzzz. Erlojua

ere, beraz, soberan. Tiki-taka, tiki-taka amaigabearen tortura bukatu zait gaur.

»Belarritakoak soberan. Apaindurarik gabe entzun nahi ditut zure hitzak, besteen hitzak, nire hitzak... Ez naiz nire bihotz kexatiaren garrasiak entzuteko gai izan; belarritakoen erruz, seguru aski. Ingurukoen aholkuak ere apenas entzuten nituen, kostata; belarritakoen erruz, bai, seguru aski.

»Hegoak ireki eta harrotzean bihurtzen dira aske tximeletak. Eta nik tximeleta izan nahi dut; eskubidea dut hegan egiteko; legez idatzita ez badago ere, eskubidea dut. ESKUBIDEA DUT = eskura dut bidea... Hegan alde egiteko bidea; eskura. Eta horretarako mototsa askatu behar dut; burua astindu eta ilea hegats bilakatu. Mototsa, soberan. Kendu mototsa, askatasun hotsa.

»Zimurrak ezkutatzeko, beltzuneak desagerrarazteko, azal latza leuntzeko... Makillajea. Muxu bat emanda berehala desagertzen da ezpainetako. Kontuz! Benetako muxua denean bakarrik; bestela, hor dirau ezpain-gorri artifizialak, betierean. Eta nik, orain dela urte asko apaindu nituen ezpainak lehen (eta azken) aldiz. Gaur, margoturik diraute. Aspaldi desagertua ordea, begietako errimela; lehen malkoak ezabatu baitzuen, Jainkoak daki noiz.... Makillajea. Alokairuzko aurpegia. Soberan.

»Ez, oraindik ez. Ez nago prest; ez nago biluzik. Ez naiz bete-betean NI. Kulerokoak, bularretakoa... Soberan barruko arropa; soberan, azken arrastoak».

STOP. Stop botoiari saka eta kalera irten zen; biluzik.

Ordu anitz eman zituen nora ezean, helmuga zehatzik gabeko ibilaldi batean. Plazera.

Biluzik eta oihuka; hori baitzen behar zuena. Isilean oihuka baina; hitzik behar ez den oihu batean. Lepoa tente, arnas sakonean murgildurik eta biluzik. Bakea helezina bada, hori zen antzekoena. Aske sentitu zen, lehen aldiz.

Gizon haren itzalean bizi izan zen urte luzez; Koldo, Kepa ... berak ere ez zuen oroitzen zehatz, eta horrek ere garrantzi gutxi du orain. Boterea indarrez ezartzen duten koldar horietakoa zen, edo da, batek daki. Maitasunaz ezer gutxi ulertzen duten horietakoa, emakumeak gorputz desiragarria izatea delitua ez dela onartu ezin duten horietakoa, delitua hain zuzen, edonor gutxies-tean dagoela konturatu ez diren horietakoa. Eta berak hasi zuen emakume haren eraiketa, barne eraiketa. Eta zorotzat hartu zuten sasi-epaile guztiek jarraitu zuten sarraski harekin. Epaitu egin zutelako bai; ezjakintasunak bultzaturiko epaiketa, alegia. Gutxi behar izan baitzuten zoroetxera bidaltzeko; hasperen bat, besterik ez.

Mundu osoak egon behar du zoro; inor bere senean badago, emakume hori baita. Eta hori ulertzeko gai ez dena, hori, horixe bera da zororik zoroena hemen. Baina ez zuen inork ulertu.



Irudia:
Kristina Fernandez

NOR DA

Haizea Galarraga Arrizabalaga.

Gasteizen jaioa, 1990ean. Lehen Hezkuntzako irakasle izateko ikasketak burutu eta Euskal Filologiako masterra gauzatu zuen. Idazle Eskolan lehenengo maila bukatu berri du.